



GAZTE FOROETARAKO EZTABAIDAGAIK ETA EDUKIAK

1. Proiektuaren aurrekariak

Eusko Ikaskuntzak zabaldu duen gogoeta prozesuan zehar (2017-2019), gazte batzuk elkartzeko aukera izan dugu. Toki, ideologia eta sexu-genero ezberdinetako gazteok gure bide propioa eraiki dugu eta, ezberdintzen gaituzten mugen gainetik, gure kezka eta proposamenak [Liburu Zurian](#) txertatzeko foro espezifikoak egiteko autonomia izan dugu: aurrenekoa 2018ko maiatzaren 19an Kanboko Herriko Etxean; eta bigarrena, urte bereko azaroaren 8an, Leioako Gizarte Zientzien fakultatean.

Kanbon antolatu zen foroari esker, gazteen lehentasunak eta kezkek agertu ziren eremu desberdinetan. Taldeka antolatuko hausnarketa horiei esker euskal eremuen diagnostiko berezi bat agertu da. Lehenik, giza eskubideei buruz, etorkizunerako gai “berri” batzuen aztertzearen beharra agertu da instituzioen partez: LGBTQI+, errefuxiatuak, emakumeen aurkako bortizkeria, adierazpen askatasuna, lan prekaritatea. Euskal kasuari lotuko biolentzia ere aipatua izan da, azpimarratuz ez errepikatzeko bermeak eta enpatia sakondu behar direla ahal bezain laster.

Bigarrenik, trantsizio ekologiko eta energetikoa azaldu zen. Gai horren inguruan, aldaketa sakonak behar direla gure eguneroko bizian aipatua izan da, eta instituzioek protagonismo handia dute jorratzeko. Trantsizio hori garapenaren definizio berri baten inguruan antolatu behar da, eskala lokala erabiltzean, eta gizartearen kontzientziazioaren lantzean hezkuntza programei esker.

Hirugarrenik, “ezagutzaren gizartea” aipatua izan da gazteen artean. Horri buruz, hizkuntza, kultura eta nortasuna kontzeptuak berdefinitu egin behar dira, euskal berezitasunaren babesteko mundu globalizatu eta muga gabeko batean, non folklorea garrantzitsua agertzen den. Azkenik, Kanboko foroan erabakitze gaitasuna garrantzitsua agertu zen, bereziki gazteen konfiantza eskasari buruz. Erabakitze gaitasuna eremu askotan babestea aipatua izan da: alderdi politikoetan, mugimendu sozialetan, enpresetan, elkarteetan, baita ere bizi publikoan orokorrean. Gai desberdin horietan instrumentu berri batzuk aipatuak izan dira -gazte kuotak batik bat- interesgarria litzatekeena denbora eta jende gehiagorekin eztabaidatzea, eta materializatzea etorkizunean.

Leioako Gizarte Zientzien Fakultatean egindako foroan lau gairen inguruan eztabaidatu genuen: gazteen prekaritatea, biolentzia matxista, jasangarritasuna eta euskal gatazka eta giza eskubideen urraketak. Askok izan ziren foro honetan agertu ziren behar eta lehentasunak, hauen artean, ultra-eskuinaren gorakada, errefuxiatuen egoera, euskararen egoera, lan-prekaritatea, egonkortasunik gabeko etorkizuna, emakumeen lan-egoera, biolentzia matxistaren aurreko pasibitatea, herritarren segurtasunerako legea, mobilizatzearen beharra eta, azkenik, gure erabaki propioak hartzearen beharra, erabaki gaitasun handiagoaren beharra.



Bestalde, Eusko Ikaskuntzak garatutako Liburu Zuriak zenbait behar jasotzen ditu, era berean, proiektu hau burutzeko inspirazio iturri izan direnak:

- *“Gizarte zibilaren antolaketa handitu”*
- *“Konfiantza birsortzeko sareak ehundu”*
- *“Gazteei, dauden aukerak topatzen laguntzea”*
- *“Gogoeta zabala, kritikoa eta anitza burutzeko proposamena”*
- Demokratizazioan sakontzeko, *“gazteen erabakimen politikoa areagotzeko neurriak ezarri”*
- *“Hiru planoen elkarlana: norbanakoak, eragileak eta instituzioak elkarrekin lan egitea beharrezkoa da. Elkarren arteko errespetuan eta aitortzan oinarritutako gobernantza tresna partekatu berriak abian jartzea proposatzen da”*

2. Eduki proposamena

Horrela, mugaz gaindiko lankidetzarako proiektu hau planteatzen dugu 2018an garatutako eztabaida eta hausnarketarako mahaiak zein [Liburu Zurian](#) (2017-2019) jasotako premisa eta proposamenak oinarri hartuta. Eskuardean dugun hau gazteongan fokatutako mugaz gaindiko berrikuntza sozialerako proiektua da, elkar-ezagutza eta balore partekatuen sustapena bultzatzen dituen diziplinarako proiektua. Horrela, diziplinarako ikuskera horretatik, lurralde ezberdinetan garatuko ditugun topaketa eta jardunaldiak lau lan-arlotan zentratuko dira:

A. Gobernantza: parte-hartzea eta gazteriaren ahalduntzea

Belaunaldi berriak gaur egungo erabaki-hartze prozesuengandik urruntzen ari dira erakundetze eta erabaki politikoen zurruntasunaren ondorioz, nahiz eta belaunaldi hauek izan erabaki-hartzeen eraldaketa sor dezaketen elementu nagusia. Gainera, eztabaida politikoarengandik ere urrunduak izaten ari dira gehiegizko erakundetzearen joerarengatik, gazteak herritar pasibo bihurtuz. Gazteek erabaki publikoengandik duten distantzia hori maiz azaldu izan da belaunaldi berrien izaera indibidualistagatik. Haatik, indibidualismoak belaunaldi berriengan eragina izan arren, ez du esan nahi gazteek kontzientzia kolektiborik ez dutenik. Egun, erabaki publikoetan parte-hartzeko modu berriak daude, zeintzuk zoritxarrez ez dira erakundeen partetik aintzat hartzen.



B. Ongizate materiala: enplegua eta etxebizitza

Lan merkatuaren egungo egoerak ondorio aipagarriak ditu belaunaldi berrien bizi-baldintzetan. Egungo sisteman, lan-dinamikak baldintzatzen ditu erabaki ekonomiko, sozial eta politikoak. Gainera, lan ziurgabetasunak zenbait alorretan ditu ondorio esanguratsuak, halaber, gazte-emantzipazioan, identitate propio baten garapenean edo parte-hartze politikoan ere.

C. Euskara eta hizkuntza-politikak

Euskararen egoera guztiz ezberdina da euskal eta nafar lurraldeen toki batetik bestera. Honek euskararen ikaste zein erabileraren inguru eztabaidak korapilatsuak izatea eragiten du, askotan polemikaz inguratutakoa. Alta, gazteok gai izan behar dugu zoru minimo komun bat finkatu eta euskara herritar guztiok biltzeko hizkuntza bihurtu, eta ez mugak sortuko dituen.

D. Hezkuntza formala zein informala

Europar Batasunetik zein Estatuengandik -Espainia eta Frantziako Estatuak, euskal eta nafar lurraldeen kasuan- bultzatzen den hezkuntza sistema arautuak ezagutza eta erronkei aurre egiteko baliabide zein gaitasunak garatzea baino, lan-merkatura soilik zuzenduak dauden gaitasun zehatzak garatzeko hezkuntza-planetan zentratzen da. Zentzu horretan, hezkuntza eredu formalen inguruan hausnartzeko beharraren garrantziari, hezkuntza-esparru informalen inguruan eztabaidatu beharra ere agertzen da, hauek berebiziko garrantzia baitute non eta lan-merkatura bideratuta dauden gaitasun eta ezagutzetarako bakarrik dagoen hezkuntza-sistema batean.

Amaitzeko, hiru izango dira aipatutako lau lan-eremu ezberdinetan landuko diren alderdiak:

- Gazte ikuspuntu batetik gai bakoitzean planteatzen diren behar eta erronkak, non, gainera, lehenetsuneko erronkak adostuko diren.
- Adostutako erronka eta beharrei aurre egiteko behar diren tresna edo neurri zehatzen identifikazioa. Gainera, dagoeneko martxan dauden ekimen edo esperientziak partekatze aukera egongo da.
- Azkenik, garrantzia berezia hartuko du lurraldeen arteko lankidetzaren balore partekatu eta aniztasunaren inguruko hausnarketa eta proposamenak partekatuko ditugu eta lurraldeen arteko lankidetzaren ereduak identifikatu, lurralde bakoitzeko ezaugarriak aintzat hartuz.